

H8 Obra handietarako lizentzia

<b>Saila</b>	Hirigintza										
<b>Zer da / Zertarako da</b>	Adierazpen-izaera duen administrazioko baimen honek aukera ematen du eraikuntzako obrak, instalazioak eraikitze eta ezartzeko obrak, eta, orobat, eraikinaren edo instalazioaren arkitektura-eraketa edo -egitura ukitzen duten eta eraikinak eta instalazioak zabaltzeko, eraberritzeko eta zaintzeko diren lanak egiteko.										
<b>Nork eska dezake?</b>	Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.										
<b>Aurkeztu beharreko agiriak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskaera-idazkia, eskabide orokorrari jarraiki egina.</li> <li>2. Interesdunaren NANA.</li> <li>3. Teknikari gaitu batek idatzitako proiektua. Bi ale bat paperean eta beste bat CDan. <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lizentzia emateko, oinarrizko proiektu bat aurkeztu beharko da, teknikari eskudun batek sinatua. Horrekin batera, segurtasun plan, HONadakinaren kudeaketarako plana eta materialen kontraren plana.</li> <li>2. Obra hasi aurretik, gauzatze-proiektua aurkeztu beharko da, teknikari gaitu batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.</li> </ol> </li> <li>4. Kasu bakoitzean aplikagarri den legedian ezarritako baimenak.</li> </ol>										
<b>Non eskatzen da?</b>	<p>Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era).</p> <p>OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna. Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 edo hirigintza@ibarra.eus</p>										
<b>Zenbat kostatzen da?</b>	<p>Udalak likidazioa jakinarazten duenean, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ordaindu beharko da. 2016 4,75% PEM</p> <p>Gainera Obra Lizentziaren Tasa Ordenantza fiskaletan ezarritakoa.</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2"><b>TASA 2016.Licencias de obra:</b></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2">1.3. Licencias mayores</td> </tr> <tr> <td>1.3.1 Presupuesto &lt;12.000,00 €</td> <td>416,93 €</td> </tr> <tr> <td>1.3.2 12.000,01 € &lt; Presupuesto &gt; 100.000,0 €</td> <td>611,59 €</td> </tr> <tr> <td>1.3.2 Presupuesto &gt; 100.000,01 €</td> <td>833,86 €</td> </tr> </tbody> </table>	<b>TASA 2016.Licencias de obra:</b>		1.3. Licencias mayores		1.3.1 Presupuesto <12.000,00 €	416,93 €	1.3.2 12.000,01 € < Presupuesto > 100.000,0 €	611,59 €	1.3.2 Presupuesto > 100.000,01 €	833,86 €
<b>TASA 2016.Licencias de obra:</b>											
1.3. Licencias mayores											
1.3.1 Presupuesto <12.000,00 €	416,93 €										
1.3.2 12.000,01 € < Presupuesto > 100.000,0 €	611,59 €										
1.3.2 Presupuesto > 100.000,01 €	833,86 €										

<b>Prozeduraren epea</b>	-Zenbatetsitako epea: hilabete. - Legezko gehieneko epea: hiru hilabete. - Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: aldekoa, betiere hirigintza- edo lurralde-antolamenduarekin bat badator.
<b>Araudi aplikagarria</b>	- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 207. artikulua eta hurrengoak (EHAA, 138. zk., 2006/07/20). - Indarrean dagoen udal plangintza.
<b>Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura</b>	1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
<b>Geroagoko izapideen laburpena</b>	1. Txosten teknikoa egitea. Eskabidea aztertu eta analizatzea, eta hirigintzako araudiari ondo egokitzen zaion egiaztatzea. Beste administrazio publiko batzuek txostena nahitaez egin behar badute, haiei eskabidearen berri ematea. 2. Organo eskudunak ebazpena ematea. 3. Kontu-hartzailetzari bidaltzea, likidazioa egin dezan. 4. Eskatzaileari jakinaraztea.
<b>Agiri lagungarriak</b>	HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA
<b>Nork onartu behar du?</b>	Gobernu Batzordea
<b>Izapidetzeko ardura duen udal saila</b>	Hirigintza
<b>Informazioaren balioaldia</b>	Araudia aldatzen den arte.
<b>Oharrak</b>	1. Bide publikoa edukiontziekin edo elementu lagungarriekin okupatu behar izanez gero, dagokion baimena eskatu beharko da. 2. Eraikin berria bada, obrak hasi aurretik zuinketa-akta edo sokak jartzea eskatu beharko da. 3. Eraikinak edo eraikinetako beharrezko aldeak okupatu eta erabiltzen hasi aurretik, horiek lehenengoz okupatzeko lizentzia eskatu beharko da.